



IKASTOLEN

BATZARRA



PRENTSA OHARRA

IKASTOLEN ZAZPIGARREN BATZARRA

## **Ikastolen Zazpigarren Batzarra, biharko Euskal Herria hezkuntzatik eraikitzeko**

Ikastolak bete-betean murgilduta daude Zazpigarren Batzarrean. Eztatidatzen eta erabakitzen ari direna: Biharko Euskal Herriak behar duen ikastola eredia



Hizkuntza eta Kultura, Euskal Curriculuma eta materialgintza, Burujabetza digitala, Hezkuntza Marko Orokorraren beharra, erronka soziodemografikoa eta gizartearen eraldaketa eta arrisku eta aukera berriak izan dituzte aztergai.



“Garai berri batean sartzen ari gara. Ezagutzen ez genituen errealitate eta erronka berriak ditugu. Herrigintzatik eta hezkuntzatik, erronka horiei erantzun nahi diegu, Ikastola eredian sakondu eta biharko Euskal Herrian gizartearen eta herritarren tokia aldarrikatu nahi ditugu”, adierazi du Agurne Barruso Ikastolen Zuzendari Nagusiak.



*Iruñeko Baluartean elkartuko dira, ekainaren 22an, euskal lurralde guztietako 114 ikastola, eztabaida segida baten emaitza den ponentzia bozkatu eta erabakitzeko. Bidean, mila ekarpen eta emendakin baino gehiago jaso dituzte.*

-----

Ikastolak gure Zazpigarren Batzarrari begira lanean ari gara buru-belarri. Ekainaren 22an ospatuko da, Iruñean. Milaka guraso, irakasle, langile, ikasle eta herritar biharko hezkuntzari, biharko ikastolei eta biharko Euskal Herriari egin nahi diegun ekarpenaz hausnartzen eta erabakitzen ari gara. Geuretik onena emanez, geuk dakigun modura: behetik gora, ikastolaz ikastola, herriz herri, izaten eta egiten. Biharko ikastolak irudikatu eta eraikitzen, biharko Euskal Herria eraikitzeko.



IKASTOLEN

BATZARRA



Hiru dokumentu landu dira 7. Batzarrari begira: Ikastolen Seigarren Batzarretik hona egindako ibilbidea jasotzen duen txostena da lehenbizikoa; ikastolei eta hezkuntza-sektoreari eragiten dieten hainbat parametroren egungo egoeraren diagnostika jasotzen du bigarren txostenak; eta zortzi-hamar urte barru ikastolak non eta nola ikusi nahi ditugun eta toki horretara iristeko landu beharreko ildoak zeintzuk diren jasotzen dituen txostena da hirugarrena.

Ildo horietan biltzen ditugu gizarteak egiten dizkigun eskaerei eta egun ditugun erronka nagusiei erantzuteko proposamenak: erronka demografikoari (jaiotzaren jaitsiera eta kanpotik gero eta jende gehiagoren etorrera), erronka sozioekonomikoei, euskararen biziberritzeari... erantzuten diegu. Baina erronka horiei guztiei gure ereduak, Ikastola ereduak, erantzun nahi diegu. Horregatik, lehenik eta behin, gure ereduaren oinarriak sendotuko ditugu, baita gaurkotu ere. Gure erakundetzea eta sareak ere indartuko ditugu. Gure hezkuntza proiektuak pertsonak izango ditu erdigunean, eta Hezkuntza Marko Orokorrean definitu dugun pertsona ereduak izango dugu ipar, euskararen eta euskal kulturaren transmisioa ardatz izango duen estrategia ideologiko-pedagogikoarekin.

“Oso pozik gaude ikastoletatik jaso dugun erantzunarekin. Otsailaren 26an eskualdeka hasi genituen bileretan ikusi genuen interes handia erakutsi zutela ikastolek gure zazpigarren batzarrari begira. Bilera horietan ere luze hitz egin genuen etorkizunaz eta planteatzen ditugun proposamenez. Aberasgarria izan zen ikastolen pultsua hartzea, eta orduan ere gogoeta interesgarri eta mamitsuak bildu genituen”, adierazi du Ikastolen Elkarteak zuzendari nagusi Agurte Berrusok.

“Nabaritu dugu ikastola bakoitzean ere gogoeta sakonak egin dituztela planteatu ditugun hiru txostenen gainean. Adierazgarria izan da zenbat ekarpen eta emendakin egin dizkieten dokumentu horiei”, gaineratu du Berrusok. Emendakinak aztertu eta zeintzuk onartzen diren eta zeintzuk bozkara bideratzen diren ebazteko Ikastolen Elkarteak Artezkaritza Kontseiluaren lana handitu egin du jasotako kopuruak, baina epeen barruan sartu dira. “Emendakin batzuk bere horretan onartu ditugu, beste batzuk partzialki. Ikastola zenbaitek gai beraren inguruan antzeko emendakinak sartu dituztenez, guztiekin sintesi bat ere egin dugu. Egia esan behar badugu, hasierako proposamena aberastu eta zehaztu egin dute emendakinok. Testuan onartu ez ditugun emendakinak ikastolei itzuli dizkiegu, zergatik onartu ez ditugun adieraziz, eta haien esku geratuko da emendakin horiei eutsi eta batzarrera bozkatzera eramatea, edo erretiratzea”, azaldu du Ikastolen Elkarteak zuzendari nagusiak.

Ekarpenei dagokienean ere ugari eta askotarikoak egin dituzte ikastolek: “Gehien gehienak oso baliagarriak iruditu zaizkigu. Gogoeta sakonak dira asko, Batzarrerako dokumentuetara eraman ezin direnak, dokumentuok orokorrak direlako eta ekarpenak zehatzagoak. Baina aintzat hartuko ditugu, hartuko ditugunez, Zazpigarren Batzarretik aurrera egingo ditugun plan estrategikoetan”.

Ikastoletan eman diren eztabaida saioetan nabari agertu dira kezka sakonak eragiten dituzten gaiak. Alde batetik, hizkuntza normalizazioari dagozkionak daude; euskararen egoeran eman diren atzerapausoak, euskara ofiziala ez den eremuetako egoera, turistifikazioaren eragina... Pedagogia alorrekoak ere badira: digitalizazioa eta burujabetza teknologikoa, berrikuntza



**IKASTOLEN**

**BATZARRA**



pedagogikoa... Demografiaren bilakaeraren eta egoera sozioekonomikoaren ondorioak ere badira kezka iturri.

Ikastolen Elkarteko Artezkaritza Kontseiluak mugimendua osatzen duten 114 ikastolak zoriondu ditu egin duten lanarengatik. “Erronka handiak ditugu etorkizunari erantzuteko. Baina prozesu honek erakutsi digu ikastolak sendo eta indartsu gaudela. Eztabaida eta gogoeta sakon eta emankorra izaten ari dira. Auzi garrantzitsuak ditugu esku artean, Euskal Hezkuntzarentzat, eta gizarteko auzi garrantzitsuei erantzun nahi diegu hezkuntzatik, ikastoletatik. Hau guzti hau ezin dugu bakarrik egin. Herrigintza dugu oinarri, eta herrigintzari atxikirik jarraitu behar dugu, gainerako hezkuntza eragileekin, euskalgintzako eragileekin, gizarteko eragileekin eta erakundeekin. Baina guk egiteko handia dugu. Ez da gutxi orain arte egin duguna, baina gehiago dugu egiteko”.



IKASTOLEN

BATZARRA



NOTA DE PRENSA

SÉPTIMA ASAMBLEA DE LAS IKASTOLAS

## **Séptima Asamblea de Ikastolas, para construir desde la educación la Euskal Herria de mañana**

Las ikastolas están inmersas de lleno en la Séptima Asamblea. Lo que se está debatiendo y decidiendo: el modelo de ikastola que necesita Euskal Herria para mañana



El Euskera y la Cultura, el Currículum Vasco y los materiales pedagógicos, la soberanía digital, la necesidad del Marco General de Educación, el reto sociodemográfico y la transformación de la sociedad y los nuevos riesgos y oportunidades han sido los temas tratados.



"Estamos entrando en un nuevo tiempo. Tenemos nuevas realidades y nuevos retos que desconocíamos. Queremos responder a estos retos desde la construcción de país y la educación, profundizar en el modelo de Ikastola y reivindicar el lugar de la sociedad y de la ciudadanía en Euskal Herria del mañana", ha señalado Agurne Barruso, Directora General de Ikastolen Elkarte.



*El 22 de junio, 114 ikastolas de todos los territorios vascos se reunirán en el Baluarte de Pamplona para votar y decidir una ponencia fruto de una serie de debates. En el camino, han realizado más de mil aportaciones y enmiendas.*

-----

Las ikastolas estamos trabajando intensamente de cara a nuestra Séptima Asamblea prevista para el próximo 22 de junio en Pamplona. Miles de padres, madres, profesores, trabajadores, alumnos y ciudadanos estamos reflexionando y decidiendo sobre nuestra contribución a la educación de mañana, a las ikastolas de mañana y a la Euskal Herria de mañana. Dando lo mejor



**IKASTOLEN**

**BATZARRA**



de nosotros, de la forma que sabemos: de abajo a arriba, ikastola a ikastola, pueblo a pueblo. Imaginando y construyendo las ikastolas del mañana, para construir la Euskal Herria del futuro.

Se han elaborado tres documentos de cara a la Asamblea de las ikastolas: el primero es el informe que recoge la trayectoria seguida desde la Sexta Asamblea de Ikastolas hasta la fecha; el segundo informe recoge el diagnóstico de la situación actual de los diferentes parámetros que afectan a las ikastolas y al sector educativo; y el tercero es el informe que recoge dónde y cómo queremos ver las ikastolas dentro de ocho y diez años y cuáles son las líneas a trabajar para llegar allí.

Entre estas líneas enmarcamos las propuestas para dar respuesta a las demandas que nos plantea la sociedad, así como los principales retos que tenemos en la actualidad: respondemos al reto demográfico (descenso de la natalidad y creciente afluencia de personas migrantes), a los retos socioeconómicos, a la revitalización del euskera... Pero queremos responder a todos estos retos desde nuestro modelo, desde el modelo Ikastola. Por ello, en primer lugar, vamos a consolidar y actualizar las bases de nuestro modelo. Reforzaremos también nuestra institucionalización. Nuestro proyecto educativo estará centrado en las personas y el modelo de persona definido en el Marco General de Educación de las ikastolas será nuestro guía, y dispondremos de una estrategia ideológico-pedagógica centrada en la transmisión del euskera y la cultura vasca.

"Estamos muy contentos con la respuesta que hemos recibido de las ikastolas. En las reuniones que iniciamos el 26 de febrero por comarcas, las ikastolas mostraron un gran interés de cara a nuestra séptima asamblea. En estas reuniones también hablamos largo y tendido del futuro y de las propuestas que planteamos. Fue enriquecedor tomar el pulso de las ikastolas y ya entonces pudimos reunir reflexiones interesantes y jugosas ", ha señalado Agurne Barruso, directora general de Ikastolen Elkartea.

"Hemos percibido que en cada ikastola también han hecho reflexiones de calado sobre los tres informes que hemos planteado. Ha sido significativo el número de aportaciones y enmiendas que han realizado a estos documentos ", ha añadido Barruso. La cantidad de propuestas y enmiendas recibidas ha aumentado. El trabajo del Consejo Rector de Ikastolen Elkartea para estudiar las enmiendas y decidir cuáles se aprueban y cuáles se derivan al voto, pero se ha realizado dentro de los plazos. "Hemos aceptado algunas enmiendas como tal, otras parcialmente. Como varias ikastolas han introducido enmiendas similares en torno al mismo tema, también hemos realizado una síntesis con todas ellas. Hemos de reconocer el valor de estas enmiendas, ya que enriquecen y concretan la propuesta inicial. Las enmiendas que no hemos aprobado en el texto las hemos devuelto a las ikastolas indicando por qué no las hemos aprobado y quedará en sus manos mantenerlas y llevarlas a votar a la asamblea, o retirarlas ", ha explicado la directora general de Ikastolen Elkartea.

En cuanto a las aportaciones, las ikastolas también han hecho muchas y variadas reflexiones: "La mayoría nos han parecido muy útiles. Son muchas las reflexiones profundas que no se pueden trasladar a los documentos de la Asamblea, porque éstos son más generales y las aportaciones más concretas. Pero las tendremos en cuenta, ya que las incorporaremos, en los planes estratégicos que haremos a partir de la Séptima Asamblea ".



**IKASTOLEN**

**BATZARRA**



En las sesiones de debate que se han dado en las ikastolas han aparecido temas que suscitan profundas inquietudes. Por un lado, están los relativos a la normalización lingüística; el retroceso en la situación del euskera, la situación en las zonas en las que el euskera no es oficial, el impacto de la turistificación... También hay inquietudes pedagógicas: digitalización y soberanía tecnológica, innovación pedagógica... Las consecuencias de la evolución demográfica y de la situación socioeconómica son, también, motivo de preocupación.

El Consejo Rector de Ikastolen Elkartea ha felicitado a las 114 ikastolas que conforman el movimiento por su labor. "Tenemos que afrontar grandes retos en el futuro. Pero este proceso nos ha demostrado que las ikastolas estamos sólidas y fuertes. El debate y la reflexión están siendo profundos y fructíferos. Tenemos entre manos cuestiones importantes para la Educación Vasca y queremos dar respuesta a cuestiones importantes de la sociedad desde la educación, desde las ikastolas. Somos conscientes de que no podemos llevarlo a cabo todo esto solos. Nos basamos en la construcción de país y debemos seguir vinculados a ella, junto con el resto de agentes educativos, agentes del mundo del euskera, agentes sociales e instituciones. Pero nosotros tenemos mucho que hacer. No es poco lo que hemos logrado hasta ahora, pero tenemos un gran trabajo por delante".